

ikast



INAUTERIAK

NEĞU ĞORRIA





Erreferentziako
txartela:

Finantza-txartelen
erraztasun
guztiek in eta
gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian



- 3 ELKARRIZKETA: FRANTXUA MAITIAREKIN SOLASEAN
- 7 ERREPORTAJEA: MOZORROAK IKASTOLAN HASI ZIREN
- 14 ARMENTIA, MARKAK EGIN DITUEN IKASTOLA
- 16 BIZKAIKO HIRUGARREN IKASTOLARIK HANDIENA, ARKADIA BAT
- 18 LASKORAIN, IKASTOLA SOLIDARIOA
- 20 HAMARGARREN URTEURRENA OSPATUKO DU AURTEN LARZABALEKO KOLEGIOAK
- 22 GURASOAK ALDAMIOAN

EDITATZAILEA:
IKASTOLEN KONFEDERAZIOA
Zamudioko Teknologia
Elkartegia, 208 B-1
48170 ZAMUDIO
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILEA:
Zurire Mendizabal
aldizkaria@elhik.ikastola.net

ERREDAKZIOA:
Joxean Agirre eta
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILEA:
Imanol Arfola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILEA:
GERTU Inprimategia.
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

ISBN:
Ikastolen Konfederazioa,
84/933872/6/6

OTSAILA 2010

180

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net

ELKARRIZKETA «



Frantxua Maitia

Akitaniako Eskualde Kontseiluko lehendakariorde sozialista
Pirinio Atlantikarretako kontseilari orokorra
Euskararen Erakunde Publikoko lehendakariordea

“Euskararen geroari buruz Iparraldean
itxaropentsu gara”

Euskararen Erakunde Publikoko lehendakariorde gisa, 2010-2016 urteetarako hizkuntza politikaren bide-orria aurkeztu duzue. Zoin dira azpimarratzeko puntu nagusiak? Orain arteko lana indartu behar dugu.

Erakaskuntza arloan bai, bistan dena, baina indar berezi bat egin behar da hedabideen arloan ere, eta sustatu Herriko Etxeekin eta Herri elkargoekin abiatu lana euskararen erabilpen soziala indartzeko.

Erakaskuntza arloan, zoin izan behar dira garatu beharreko bideak? Partikulazki klase elebidunen garapena behar dugu sustatu. Gurasoei erraztu egin behar zaie eskaintza handituz, geroz eta eskola gehiagotan eskainiz euskara ikasteko ahala. Jadanik eskola gehienetan ikas daiteke euskara; hori behar dugu oraino gehiago lagundu.

Euskararen egoera larria da oraino Ipar Euskal Herrian. Nola lortu euskara salbatu eta garatzeko beharrezkoak diren baliabideak? Euskararen egoera larria da bai, baina abiatu hizkuntz politikaren lehen emaitzak itxaropentsuak dira. Abiatu ditugun arloetan behar dugu sakondu, izan dadin erakaskuntzan, sozial arloan bizitza ingurumena hobetuz edo hedabideak lagunduz. Ikusiz eskoletan zer hartze ona duten haurrek, ikusiz eskola publikoetan, pribatuetan eta ikastoletan euskara ikasten duten haurren kopurua goiti doala, euskararen egoera hobetuz joanen da, inkesta soziolinguistikoak agertzen duen gisan, partikulazki gazteengan. Euskararen geroari buruz Iparraldean itxaropentsu gara.

Akitaniako eskualdeko lehendakariorde gisa, lizeoak zuen ardura dira. Zer egiten ahal du Akitaniak euskaraz ari den Iparraldeko lizeo bakarrarentzat? Beste lizeo guziez bezala, Akitaniako Kontseiluak behar du arduratu Seaskako lizeoaz ere. Lizeoa azkarki handitzen ari da eta aitzin egiteko hainbat behar baditu. Etxepare lizeoak Iparralde osoko lizeotarrak biltzen dituen bezala, ikasle horiek barnetegi baten beharra dute. Orain biziki egoera larrian dira, harat-hunatetan ibiliak dira goiz eta arratsez; ondorioz, behar dugu erdietsi lizeoaren ondoan lo egiteko parada ukan dezaten. Horri buruz Akitaniak laguntza handi bat ekartzen ahal du. Berrikitan ukana dugu bilkura bat Baionako auzapezarekin eta Akitaniako zerbitzuekin, eta lana aitzinatua dugu. Ondoko hilabeteetan bururaino eramanen dugu.

Frantxua Maitia, Euskararen Erakunde Publikoak aurkeztu berri duen hizkuntz politikarako 2010-2016 bide-orriaz, Euskal Autonomi Erkidegoko gobernuarekiko harremanez, euskararen aldeko laguntzez eta Akitaniaren ardurapean den Seaskako lizeoaren garapenaz aritu gara.




2010-16 URTEETARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN BIDE-ORRIAREN PUNTU NAGUSIEN BERRI EMAN ZIGUN FRANTXUA MAITIAK.

Autonomi Erkidegoak laguntza inportante eman izan die azken urteotan Euskararen Erakunde Publikoari eta Iparraldeko ikastolei. Laguntza horrek hein berean segituko duela uste al duzu? Orain arte Euskal Gobernuak egin dituen deklarazioetan agertzen da Patxi Lopezen gobernuak arrangura handia duela euskarari buruz, eta lagundu nahi duela euskara non izanik ere. Blanca Urgell Kultura sailburuak garbiki erran zuen Baionara jin zelarik laguntza hori atxikiko zuela. Bilkura bat ukan genuen ere Gasteizen, eta Patxi Lopezen aholkularia den Andoni Unzaluk garbiki errana du indar hori atxikia izanen zela. Ondar hilabete hauetan, Akitanian ezagutu duguna baino azkarrago senditu dute krisia Euskadin, eta zerga sartzeak

uste baino gehiago tipitu dira. Urtea bukatzeko hainbat milioi euro eskas zuten eta gauzak doi bat tinkatu dira. Baina, hala ere, Euskadiko Gobernuak agertua du borondatea behar den indarra emaitako euskararen laguntzeko.

Patxi Lopez lehendakaria Bordelen izan da berrikitan; elgarrekin Akitania eta Euskal Autonomi Elkarteak euroeskualde bat sortzeko xedea agertu duzue. Zer ekar diezaioke asmo horrek euskarari? Euroeskualde ez da baitezpada euskarari zuzendutako egitura bat. Baina, hala ere, euskara eta euskal kultura ere konduan hartzen ahal ditu. Lehen helburua da gure ekonomiak lot diten orain baino azkarrago, unibertsitateak proiektu amankomunen inguruan aritu daitezen eta azpiegitura handiak elgarrekin koordinatu ditzagun. Egitura berri horrek lagunduko ditu hemengo elkarte, ofiziale, unibertsitateak kooperazioen bultzatzen, eta elgarrekin horien norabideak finkatuko ditugu egitura horretatik. Euskara ere kooperazio horretarako zubi bat izanen da. Gure gizarteak gehiago gurutzatzen badira, uste dut euskara gehiago lagundua izaiten ahal delako.

Euroeskualdeaz ari garela, Euskal Herriko ikastolek mugaz gaindiko Europar Kooperatiba osatu berria dute, bezkuntza arloan Europan egiten den lehena. Nola dakusazu? Berrikitan jakina dut kooperatiba europarra osatu duzuela. Biba zuek halako ekimen bat muntatzeagatik. Uste dut ikastola guzien onuretan izanen dela. Hasteko, bizi luze bat desira diot kooperatiba berriari! [iKcStOlq](#)

A photograph of Frantxua Maitia, a man with grey hair, wearing a dark suit, light blue shirt, and dark tie. He is standing in a fruit market, smiling at the camera. He is surrounded by various fruits, including oranges, lemons, and apples, displayed in crates and baskets. The background shows more market stalls and produce.

“LIZEOA AZKARKI
HANDITZEN ARI DA ETA
AITZIN EGITEKO HAINBAT
BEHAR BADITU. ETXEPARE
LIZEOAK IPARRALDE OSOKO
LIZEOTARRAK BILTZEN
DITUENEZ, IKASLE HORIEK
BARNETEGI BATEN
BEHARRA DUTE.”

FRANTXUA MAITIA, ESPERANZADO

Frantxua Maitia, vicepresidente por el PSF del Consejo Regional de Aquitania, consejero general de los Pirineos Atlánticos y vicepresidente asimismo de la Oficina Pública del Euskara, que de aborda en esta entrevista temas de tanta actualidad como la recién presentada hoja de ruta que guiará la política lingüística en los próximos seis años, la ampliación de las dependencias que albergan el liceo de Seaska en Baiona o las relaciones del Consejo Regional con el Gobierno Vasco. Maitia reconoce que la situación del euskara en Iparralde es crítica, pero se muestra esperanzado con los pasos que ya se están dando en la enseñanza. En cuanto a la ampliación del liceo Bernat Etxepare, reconoce que las gestiones para la realización de un internado adosado al liceo están muy avanzadas.

FRANTXUA MAITIA, OPTIMISTE

Frantxua Maitia est vice-président socialiste de la Région Aquitaine, Conseiller Général des Pyrénées Atlantiques et vice-président de l'Office Public de la Langue Basque. Dans l'entretien qu'il nous a accordé, il aborde de nombreux sujets d'actualités comme par exemple la feuille de route de la politique linguistique de l'OPLB pour les six prochaines années, les travaux de rénovation du lycée Etxepare ou encore la convention entre le Gouvernement Basque et l'OPLB. S'il est conscient que la situation de la langue basque est préoccupante, il reste néanmoins optimiste car il pense que les mesures prises dans le cadre du Plan linguistique aideront l'euskara à se développer. Pour ce qui est du lycée Bernat Etxepare, il affirme que les négociations en vue de l'obtention d'une aide financière pour la construction d'un internat sont bien avancées.

Zatoz zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- 170 esperimentu interaktibo
- Planetarium Digitala
- Planetarium Txikia
- Exploratoriumeko Simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta,...



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegia Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia

Tlf: 943 012 478. www.miramón.org

kutxaespacio@kutxagunea.org

zer nahi duzu bihar?

mozorroak ikastolan

Gurasoak, ikasleak, irakasleak eta begiraleak inauteriak prestatzen, Tolosa, Donapaleu, Lesaka eta Bera bisitatu genituen



T

Bizitza ez da beti lana eta garizuma. Festa egiten ere jakin behar da, eta ikastolan txiki-txikitandik ikasten dute horretan ere. Ikastola guztietan egin dira inauteriak. Guk tradizio gehien duten lauzpabost herritakoak bisitatu genituen.

“Ostegun gizen eguerdiko hamabietan txupinazoarekin abiatzen dira inauteriak Tolosan, eta hori baino lehen ikastolako txikienek festa handi bat eskaintzen diete gurasoei ikastolan bertan. Urtero gai baten inguruan mozorrotzen gara; aurten zirkoa izan da gaia. Domatzaileak, lehoiak,

malabaristak, musikariak, pailazoak... HH eta LHko 732 ikasleek hartu dute parte”, hasi zitzaigun kontatzen **Anaje Urkola,** aisialdiko koordinatzailea. Aipagarria eta goraiatzekoa da irakasleek festa hau prestatzen hartzen duten lana, izan ere, mozorroko ikastolan bertan egiten baitituzte plastiko eta bestelako materialarekin. Prestaketa lan honek guztiak ikasleak inauterietarako girotzen izugarri laguntzen du.

Laskorain Ikastolak inauterietarako prestatzen dituen ekintzen artean badira bi nabarmendu beharrekoak, larunbat arratsaldeko danborrada da bata eta asteleheneko desfilea bigarrena. 1.200 gaztetxok hartu zuten parte, eta horietatik 400 bat Laskorain Ikastolako Kazkabarra aisialdi taldekoak izan ziren. “Eguberriak ondoren hasten gara larunbat arratsalde eta igande goizetan dantzak prestatzen” esan zigun



Amaia Olazabal begiraleak.

Tolosako Laskorainek 35 begiralekin egiten du lan gelaz kanpoko ekintzen arloan eta aisialdian, eta begiraleez gainera Batxilergoko ikasle talde batek laguntzaile gisa hartzen dute parte.

“Gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari dira inauterietako konpartsak, eta ikasle ohi diren begiraleek zein batxilergoko gazteek daramate ardura osoa. Aurten ‘Familien kartak’ gaia hartu genuen eta familia mexikarrak, tirolesak, txinatarrak, arabiarak, inuitak, bantuak eta indioak, zazpi familia ezberdin ateratu dira. Laurehun ikasle dantza bera egiten jartzea oso zaila zenez, bitan banatu ditugu; horrela, erdiek dantza bat egin dute eta beste erdiek beste bat. Desfile honetan modako kantak erabiltzeko joera izaten dute ikastetxeek, eta gu beti euskal kantak erabiltzen

saiatzten gara, Gozategirenak edota Betagarrirenak, esate baterako. laz marrazki bizidunen gaia erabili genuen, aurrekoan euskal mitologia, beste urte batean Argitxoz mozorrotu ziren eta Teoz beste batean” erantsi zuen Anajek.

Jantzi asko jostunen bidez egiten dira. Ikastolara etortzen dira ikasleei neurriak hartzera. “Bestela ere izaten dute etxean josten nahikoa lan, igandean eta asteartean koadrilekin edo familiarekin ateratzen baitira ikasleak mozorroturik. Tolosan urte erdia pasatzen dugu mozorroko egiten”, gogoratu zuen Amaiak.

IPARRALDEAN

Amikuze Ikastolako zuzendaria da **Maite Etxeberria,** eta Iparraldean inauteriak indarra galtzen ari direla uste du. Ikastolako ikasleak eta batez ere ikasle ohiak dira tradizioari eusten eta bultzatzen ari direnak. “Herriko ikastetxeak, elkarteak eta Gaztetxea dira desfilea antolatzen

dugunak, baina ikastola izan da beti ekitaldi hau bultzatu duena. Gaztetxeko gazte gehienak gure ikasle ohiak dira eta elkarteetan dabilzan asko ere bai. Beraz, ikastola da tradizioari eusten ari zaiona, baina indarra galtzen ari da. laz ospatu ziren hemengo Kilimon joaldun taldearen 30 urteak eta desfile osoa joaldunetz jantzita egin genuen. Ikusagarria izan zen”, esan zuen.

Ikastolako ikasle guztiak, 80k, hartzen dute parte desfilean eta guraso zenbaitek ere bai. “Txapelak gelan egin genituen; ahal zuena larrauekin eta besteak moketa puska batekin ateratu ginen ardi-joale txikiak gerrian soka batekin lotuta genituela. Kilimon taldeko batzuk etorri ziren bazkalondotan jotzen erakustera”, jarraitu zuen Maitek.

Inauterietako larunbat arratsaldean egiten da desfilea eta karrika guztietatik pasatzen dira. Hegoaldetik ere konpartsak etorri ziren desfilean parte hartzera.

Normalean ikastetxe bakoitzak gai bat aukeratzen du eta horren arabera jantzi edo mozorrotzen dira. Ikastolakoek sorginak, Basajauna, euskal mitologia...; oro har, euskal gaiei lotutako mozorroko erabili izan dituzte. “Inauteriak bakarrik ez,

Olentzero ere ikastolari esker ateratu da kalera. Lehen ikastola barruan egiten genion harrera Olentzerori, baina orain bospasei urte kalera ateratzen hasi ginen. Inauteriek tradizio askoz handiagoa dute, baina festa horri ere ikastolak eutsi dio. Ikastolak deitzen du bilera eta hasten da antolaketa lan egiten, non gero eta gehiago ari dira parte hartzen beste eskolak.

Ikastola barruan Zanpantzar bat egiten dute eta epaiketa egiten diote erre aurretik. “Hemen indarra du ohitura horrek eta Biarnon ere bai. Ikasleak pasatzen dira Zanpantzarren aurretik eta



ikastolari buruz dituzten kexak agertzen dizkiote su eman aurretik. Kantinan jana txarra dela, neguan igerilekua itxi egiten dutela eta gisa horretako kexuak agertzen dizkiote”, jarraitu zuen Maitek.

Otsailaren 7an, bestalde, Donapaleun tradizio handia duen ekitaldi bat egiten da,



“Bestela ere izaten dute etxean josten nahikoa lan, koadrilarekin edo familiarekin ere ateratzen baitira ikasleak mozorroturik. Tolosan urte erdia pasatzen dugu mozorroak egiten”



ERR.



▲ **Libertimendua** izenekoa. Goizeko hamarretan hasita, kabalgata egingo da, emanaldia gero eta bazkaria segidan. Kitzikatza antzerki taldeak eta Burgaintzi dantza taldeak antolatzen du, eta laguntzaileen artean ikastola dago. “Dantza eta antzerkia nahasten dituen emanaldia da. Antzerkilariek bertako politika kritikatzan dituzte. Aspaldiko ohitura da, galduta eta berriro berpiztu dena. Hemen aritzen direnak ere gure ikasle ohiak dira gehienak”, adierazi zuen Maitek.

LESKAKO DESFILEA
Ostegun Gizez ikastolako ikasleak beren gisara ateratzen dira etxeko Zingar Arraultze eskea egiten. “Hemen 12 urte bitartekoak daude, eta denek hartzen dute parte. Handienak baserrietara joaten dira eta txikiagoak kalean ibiltzen dira

gurasoekin. ‘Arraultze, arraultze. Zingar arraultze. Bat ez bada bertze’ esaten dute joaten diren leku bakoitzean, eta zerbait ematen zaie, hala nola, dirua eta janaria, arrautzak batez ere. Egun horretan bertan, arratsaldean, merendua egiten dute ikastolan. Guraso talde bat arduratzen da merendu hori prestatzeaz”, esan zigun **Lupe Muxika** andereñoak.

Igandean Zako Zaharren desfilea izaten da, tradizio handikoa, urte batzuetan debekaturik egon eta berriro berreskuratu zena. “Berrogeita hamar bat gazte belarrez betetako zakuz jantzita ibiltzen dira jendea zirikatzen eta pixontziarekin jotzen. Baina hori elkarte batek antolatzen du”, erantsi zigun **Amaia Etxepeteleku** ikastolako amak.

Eta astelehenean egiten da ikastolak

zuzenean parte hartzen duen desfilea. LHko lehen eta bigarren mailako familiak arduratzen dira karroza prestatu eta gainerako antolaketa. **Felixa Etxabide** izan zen desfile hori prestatzen ibili zen lehen gurasotakoa bat. “Plazan guraso talde bat egoten ginen haurrak zaindus berriekin, eta ‘zergatik ez dugu egiten karroza bat ikastola bezala, gurasoak eta umeak, elkarrekin ateratzeko’ esan genuen geure artean. Gazteak ateratzen ziren gehienbat desfilean, eta amak bereziki etxean geratzen hasita geunden. Eta horrelaxe hasi ginen lanean eta desfilean gozatzen. Emakumeak josten hasi ginen eta gizezkoak karroza prestatzen. Nik izeba bat nuen jostuna, hark laguntzen zigun moztzen eta guk josi egiten genuen.

Ikastolan bertan biltzen ginen horretarako. 1991an izan zen hori. Geroztik urtero aterata da ikastola karrozarekin asteleheneko desfilean”, esan zigun Felixa. Emakume honek ez du orain umerik ikastolan, eta garai hartako ama talde bat hasita omen dago hitz egiten datorren urtean edo karroza bat elkarrekin ateratzeko. “Gure artean esaten dugu ‘Karrozen karroza’ izango dela”, esan zuen.

1991z geroko karrozen argazkiak dituzte, eta tartean gaurko jende ezaguna ikus daitezke, bertsolariak esate baterako, umeak zirenean.

“Gai irekiak izaten saiatzen gara. Olinpiadak, garai bateko eskola, espazioa, goazen hondartzara!, ijitoak, zinea, kantanteak... LH 1. eta 2. familien esku gelditzen denez antolaketa, haiek

dute erabakiaren proposamena eta ardura. Aurten Erdi Aroa da erabili dugun gaia”, esan zuen Lupek.

Amaiak oroitzen piloa du desfile hauen inguruan. “Gabonetarako gaia erabakita izaten dugu. Normalean oso gai irekiak izaten direnez, batzuek sekulako traje dotoreak egiten dituzte eta beste batzuk edozer gauzarekin mozorrotzen dira. Askatasun osoa dago horretan. Aibilezia eta sormena lantzen dira”, jarraitu zuen amak.



LESAKA. FELIXA ETXABIDE GURASO OHIA, AMAIA ETXEPETELEKU ANA ETA LUPE MUXIKA ANDERENOA INAUTERITAKO IBLIBIDEAZ MINTZATU ZITZAIZKIGUN ILUSIO HANDIZ, NABARIA BAITZEN GOGOTIK BIZI DITUZTELA.



BERA. AURTEN LEHEN ALDIZ ATERA DIRA LABIAGAOKAK SANTA AGEDA ESKEAN. ARGAZKIAN ENTSAIO EGUN BATEAN HARRAPATU GENTUEN KANTUAN.

Izaskun Garmendiak oraindano bi aldiz hartu du parte desfilean haurrekin batean. *“Beste leku batzuetan denak berdin janzten dira. Hemen, ordea, bakoitzak bere moztorra aukeratzen du”*, esan zuen. Asteleheneko desfileak egun osoa irauten du.

BERAN ARDIAK ETA ARTZAINAK

Berako Labiaga ikastolan aurtin egin dute lehen aldiz Santa Ageda eskea. Gu bertara joan ginelarik,

entsegua egiten ari ziren. **Amaia Irazoki** andereñoa eta **Josetxo San Juan** guraso eta ikasle ohia mintzatu ziren gurekin. *“Ostegun Gizen goizean egiten da hemen ere Zingar Arraultze eskea. Gu umeak ginenean bakoitzak nahi zuen lekuan egiten zuen eske hori, baina orain ikastolak auzoka banatzen ditu ikasleak, auzoetara ere joan daitezten. Orain, gainera, talde bakoitzak koplak prestatzen ditu etxex etxe kantatzeko.*

Ikastolako ikasleek sartu dute ohitura hori”, esan zuen Amaiak. “Ostegun arratsalde Artzain eta Inudeen desfilea egiten dute haurrek; neskak artzainez eta mutilak inudez janzten dira, ohitura hori baita Beran igandean helduek egiten duten desfilean ere. LHko haurrek dantza egiten dute desfile horretan eta HHkoak moztortuta joaten dira, ikastetxe bakoitza gai

baten inguruan. Gurean aurtin ardiz moztortuko dira umeak eta gurasoak artzainez. Tartean ardi beltz batzuk izango dira eta otso bat ere bai. Orain dela urte batzuk hasi ziren gurasoak desfile honetan parte hartzen eta hauek ere, noski, dantza egiten dute. Ikastolako emakume talde bat ari da hemen arratsaldetan moztorra egiten. Gurek hiru dantza eta bi abesti ikasi dituzte”, esan zuen Josetxok.•



“Eta horrelaxe hasi ginen lanean eta desfilean gozaten. Emakumeak josten hasi ginen eta gizonezkoak karroza prestatzen. Nik izeba bat nuen jostuna, hark laguntzen zigun mozten.”

MESES PREPARANDO EL CARNAVAL

Son muchas las ikastolas que trabajan en la recuperación de los carnavales propios del país o que aprovechan dichas fiestas para hacer verdaderos alardes de imaginación. En dichos centros padres, profesores y alumnos se reúnen con meses de antelación y trabajan codo con codo para preparar los bailes, los trajes y los disfraces que lucirán durante esos pocos días. Se trata de pasarlo bien, pero a la vez de dejar la imagen de la ikastola en buen lugar. Visitamos las ikastolas de Tolosa, Donapelu, Lesaka y Bera, localidades que tienen carnavales con solera.

DES MOIS À PRÉPARER CARNAVAL

Les ikastola se réapproprient les carnavales traditionnels basques ou profitant de la période pour organiser des défilés tous plus originaux les uns que les autres sont nombreuses. Dans ces ikastola, parents, enseignants et élèves se réunissent plusieurs mois à l'avance et travaillent d'arrache-pied pour préparer danses, costumes et déguisements qui brilleront pendant quelques jours. Il s'agit de se divertir mais aussi de représenter dignement son ikastola. Nous avons visité les ikastola de Tolosa, Donapelu, Lesaka et Bera, localités traditionnelles de carnavales.



IAZKO URTE hasieran ilustrazio lehiaketa bat antolatu zuen Elkar Aretoak, irakurzaletasuna sustatzeko asmoarekin. Joxan Ormazabal idazle ezagunaren ipuin argitaratu gabe bat baliatu zen horretarako, *“Hitz eta zaunka”* izenekoa, non ehiztaria zaunkaz hasten zen eta bere zakurra, aldiz, hizketan, basurde handi batek emandako sustoaren ondorioz. Ipuin harrigarri hori irakurri ondoren, ilustrazioa egin behar izan zuten haur eta gazteek. Euskal Herri osoko 800 inguru haurrek hartu zuten parte, ilustrazio bikainak jaso ziren eta maiatzean egindako sari banaketa festan jaso zituzten irabazleek beren sariak.

IAZ ilustrazio lehiaketa soil zena aurten lehiaketa bikoitz bihurtu da eta ilustrazioak eta ipuinak sarituko dira. Gainera, II. Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketan partaideen adin tartea ere zabaldu egin da: haurrek, Xabier Mendigurenen *“Hiru triku, hiru truku”* ipuin argitaratu gabea ilustratu beharko dute; gazteagoek, Jokin Mitxelena ilustratzaileak egindako hiru binetetan ikusitakoarekin ipuina idatzi beharko dute. •



elkar Ipuin eta Ilustrazio lehiaketak haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Horretarako bi modalitate antolatu dira: haurrek irakurritako ipuin bat ilustratu beharko dute, eta gazteek ilustrazio batetik abiatuta ipuina idatzi beharko dute.

IPUINA ILUSTRATU:

Haurrek, eskolako ikasturtearen arabera, hiru maila hauetan parte hartzeko aukera edukiko dute:

A maila: HH 2 eta HH 3

B maila: LH 1 eta LH 2

C maila: LH 3 eta LH 4

Xabier Mendiguren idazleak idatzitako *Hiru triku, hiru truku* ipuin argitaragabea ilustratu beharko dute haurrek. Ipuina edozein **elkar** liburu dendatan edo www.elkar.com gunean eskura daiteke.

Ilustrazioak A3 edo A4 formatudun orrian egin beharko dira. Margo mota eta teknika guztiak onartuko dira.

Marrazki bakoitzaren atzeko aldean datu hauek jartzea ezinbestekoa izango da:

Haurraren izen-abizenak.

Jaiotze data.

Telefono zenbakia eta helbidea.

Ikastetxea.

Lanak maiatzaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira edozein **elkar** liburu dendatan, edo *Euskal kulturgintza S.A - Portuetxe 88 - 20018 Donostia* helbidera bidaliz, **Ilustrazio eta ipuin lehiaketa** jarriaz.

Sariak:

- A maila: 1. saria: Oparia + Opari txartela (50 €)
2. saria: Oparia + Opari txartela (40 €)
- B maila: 1. saria: Oparia + Opari txartela (60 €)
2. saria: Oparia + Opari txartela (50 €)
- C maila: 1. saria: Oparia + Opari txartela (60 €)
2. saria: Oparia + Opari txartela (50 €)

ILUSTRAZIOAK IPUIN BILAKATU:

Gazteek, eskolako ikasturtearen arabera, hiru maila hauetako batean parte hartu ahal izango dute:

A maila: LH 5 eta LH 6

B maila: DBH 1 eta DBH 2

C maila: DBH 3 eta DBH 4

Gazteek **Jokin Mitxelenak** egindako hiru ilustrazioekin ipuin bat osatu beharko dute. Ilustrazioak edozein **elkar** liburu dendatan edo www.elkar.com gunean eskura daitezke.

Lan guztiak ordenagailuz idatzita eta 1.500–2.000 karaktere arteko luzera izan behar dute.

Ipuin bakoitza honako datu hauekin batera aurkeztu beharko da:

Gaztearen izen-abizenak.

Jaiotze data.

Telefono zenbakia eta helbidea.

Ikastetxea.

Lanak maiatzaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira, edozein **elkar** liburu dendatan, edo *Euskal kulturgintza S.A - Portuetxe 88 - 20018 Donostia* helbidera bidaliz, **Ilustrazio eta ipuin lehiaketa** jarriaz.

Sariak:

- A maila: 1. saria: Oparia + Opari txartela (60 €)
2. saria: Oparia + Opari txartela (50 €)
- B maila: 1. saria: Oparia + Opari txartela (70 €)
2. saria: Oparia + Opari txartela (60 €)
- C maila: 1. saria: Oparia + Opari txartela (70 €)
2. saria: Oparia + Opari txartela (60 €)

Oharrak:

- Ez da epe horretatik kanpo emandako lanik onartuko.
- Epaimahaiak baloratuko ditu lanen originaltasuna, kalitatea eta emandako ipuin edo ilustrazioaren esentzia jasotzea. Epaimahaia haur eta gazte literaturan aditu diren hiru lagunek osatuko dute.
- Aurkeztutako lanak, bai ilustrazioak eta bai ipuin idatziak, EUSKAL KULTURGINTZA S.A.-ren jabetzara pasako dira eta beraz, ez dira itzuliko.
 - Maiatzaren 22a aurretik jakinaraziko dira saridunen izenak.
 - Sari banaketaren lekua eta data aldeztu aurretik jakinaraziko dira.



ARMENTIA, MARKAK EGIN DITUEN IKASTOLA

Hiru lerroak osatzeko sei gela berri eta aretoa eraikiko dituzte lehengo elizan

Hamazazpi urte behar izan ditu Armentia Ikastolak matrikulazio marka guztiak hausteko. 1992-93ko ikasturtean bi talde sartu ziren erabat hondatua zegoen oblatas ordenako mojen komentuan. Gaur, 800 ikasle pasa ditu. LH3ra bitartean hiru lerroko ikastola da, eta hazkunde erritmo horri eutsi ahal izateko beste sei gela, jangela eta areto handi bat egingo dituzte elizak hartzen zuen lekuan.

Armentia ikastolak 800 ikasle pasa ditu dagoeneko. “HHn bi lerroak osatu eta umeak kanpoan uzten genituela ikusirik, hirugarrena zabaltzea erabaki genuen. Gaur LH3ra arte ditugu hiru lerroak, baina DBHra jauzia egiteko gela gehiago behar ditugu”, hasi zen **Mari Karmen Burgoa**, Armentia ikastolako arduradun pedagogikoa. Zazpi urtez izan zen Mari Karmen ikastolako zuzendari. Orain bi urte, ikastolak hartu zuen bolumena ikusita, zuzendaritza bikoiztea erabaki zuten. Iñaki

Lauzirika, enpresaren arloan esperientzia zuen pertsona, etorri zen kudeaketa ekonomikoaz arduratzera eta Mari Karmenek hartu zuen bere gain pedagogiarean arloa.

“Eraikin hau Oblatas ordenako mojen komentua eta barnetegia izan zen, eta hegala oso bat hartzen du elizak. Elizaren azpian jantokia egin nahi dugu, orain bazkariak hiru txandatan ematen ari garelako; kalitatearen mesedetan bertan prestatu nahi ditugu bazkariak. Elizak hamahiru metroko altuera duenez, bi solairutan

banatuko genuke: goiko zatian sei gela aterako ditugu hiru lerroak LH6raino luzatzeko, eta elizaren zati nagusian, berriz, gorputz heziketa eman, batzarrak egin eta beste zenbait ekitaldi egiteko aretoa jarriko genuke. Udalarekin baimenak bideratu ditugu datorren ikasturtea bertan hasteko, baina luzeagoa jo dezakenez, hurrengo Eguberriarako bukatuta izan nahi genituzke”, esan zuen **Iñaki Lauzirika** zuzendariak.

IVAPEk ere erabiltzen du Armentia ikastolaren eraikinaren zati bat bertan ikastaroak emateko.

“Alokairuan daude. Eraikinaren hegala oso bat hartzen dute. Urte birako hitzarmena dugu eurekin eta beste laurako izenpetu nahi genuke ondoren. Guretzat diru-sarrera garrantzitsua da; diru hori, egitera goazen obra finantzatzeko oso lagungarri izango zaigu”, erantsi zuen **Iñaki Garitanok**, Armentia ikastolako lehendakariak.

Armentia ikastolako etorkizun oparoa izan dezake, matrikulazio zifrak oso onak baititu. Datorren ikasturterako 45 ume dituzte matrikulaturik urtebetekoen gelatan eta 69 bi

urtekoetan. “Gasteizen oro har ume kopurua igotzen ari da, eta auzo honetan, gainera, etxe berri ugari egin digute, auzo berri bat. Lakua ere izugarri handitu da, eta gure bi autobus igarotzen dira handik ere. Enpresa handietako jende asko daukagu gurasoen artean, hala nola, Mercedes enpresakoak asko, Michelinen lan egiten dutenak ere bai eta Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundian lan egiten dutenak. Ospitaletako sendagile eta erizainak, eta irakasleen seme-alabak ere asko ditugu hemen.

Zergatik? Euskaran oso maila ona ematen duen ikastetxea garelako", jarraitu zuen **Roke Esnaolak**, ikasketa buruak.

Sei gela berri horiekin hiru lerroak LH6ra arte luzatuko lirateke. Horrek Batxilergoan ere gelak beteta izatea segurtatuko luke. Hemendik sei urtera, ondorioz, Armentia ikastola 1.200 ikasle inguru izatera iritsiko litzateke.

GERO ETA EUSKALDUN GEHIAGO

Hasierako guraso gehienak erdaldunak ziren, baina gero eta euskaldun gehiago dago gaurko promozioetan.

"Euskaraz ikasitako gurasoak dira. Ikasturte hasieran informazio orokorra emateko edo ikasturtean zehar gurasoekin egiten ditugun bileretan aukera ematen zaie hizkuntza aukeratzeko, eta txikien geletan lehengo urteetan baino jende gehiago biltzen da euskarako bileretan", jarraitu zuen Iñaki Lauzirrikak.

Hala ere, ikasleen euskara maila ez omen da beti oso eredarria. "Gure semeak Ondarroa eta Muxikako euskara primeran menderatzen du, ni ondarrutarra eta senarra muxikarra garelako. Baina euskara batuan hasten denean Gasteizko euskara egiten du, eta tamalez erdal

esapideak tartekatzen dituen euskalki bat egiten dute hemen. Hala ere, euskaraz egiten dute, hori bai", erantsi zuen Burgoak.

Gurasoen presentzia ere handia duen ikastola da Armentia. "Etengabe hobekuntza lanetan ari den ikastola izan da hau. Beti ari gara gelak zabaldu edo pasilloak margotzen, eta gurasook beti egon gara hor. Bestalde, ni ekonomialaria naiz, eta Gurasoen Batzordean laguntzea ere egokitu izan zait. Beste ikastola batzuekin alderatuz, gurasoen partaidetza handia izan dela esango nuke hemen, beharbada premiak ere handiak izan direlako.

Liburutegia, esate baterako, gurasoon artean egin genuen", agertu zuen Iñaki Garitano lehendakariak.

Komentu erraldoi horretan bi gela txukuntzeko asmotan lehen aldiz sartu zirenak izututa geratu ziren. "Garai hartan Saragevon gerra zegoen, eta komunikabideetan ikusten genituen irudiekin gogoratuta 'Saragevo' deitu genion eliza zegoen hegala horri, oso hondatua zegoela eta. Izen horrekin deitzen diogu oraindik ere. 'Saragevon utziko ditugu aulkiak', esan dezake norbaitek, eta mundu guztiak ulertzen dio. Larunbat hauetako batean



Guretzat diru-sarrera garrantzitsua da; diru hori, egitera goazen obra finantzatzeko oso lagungarri izango zaigu."

"Beste ikastola batzuekin alderatuz, gurasoen partaidetza handia izan dela esango nuke hemen, beharbada premiak ere handiak izan direlako."

gurasoak etortzekoak dira leku hori garbitzera. Normala da gurasoek hemen ordu asko sartu izana", gogoratu zuen Mari Karmenek.

"Ikastola honek sekulako meritua du, eraikin erraldoi hau erosi eta oso gela gutxirekin mailagui erantzuteko gai izan baitziren urtetan. Ikastolen Elkartasun Kutxatik laguntzak jaso izan ditugu, ikastola sortu zenetik 2008ra arte. Elkartasun kutxaren laguntza ahalbideratu du neurri handi batean Armentia proiektua" gogoratu zuen, bestalde, Iñaki Garitanok.

MENDI IRTEERAK ETA TAILERRAK GURASOENTZAT

ARMENTIAKO GURASOEN MENDI IRTEERAK ANTOLATZEN DITUZTE. "Jende asko mugitzen da irteera hauetan. Goiz bueltak izaten dira gehienetan, baina egun pasakoak ere egiten dituzte. Hileko hirugarren igandean egiten dira", kontatu zuen Roke Esnaolak.

Zaharberitze tailer bat badute oso indartsu dabilena: altzari zaharrak konpondu eta berritzen dituzte, koadroen markoak egin ere bai. Emakumeak dira tailer honetan dabiltzan eta ostiral arratsaldetan biltzen dira. "Oso gauza politik egiten dituzte. Hemen mojek erabiltzen zituzten aulki zahar asko zegoen, eta horiekin gure bulegoetan dauden aulkiak egin zituzten, esate baterako", esan zuen Iñaki Garitanok.

Badute zeramika tailer bat, eta badituzte euskal dantzak ikasteko ikastaroak ere. "Emakumeak dira dantza ikastarora etortzen direnak; argaltzeko etortzen direla esaten dute", esan zuen Burgoak.

Trikitia eta pandero tailerrak ere badituzte, eta euskara ikasteko ikastaroak ere bai, astean hiru aldiz. "Eta udaberria iristen denean, guraso asko hemen geratzen dira umeak bertan jolasean dabiltzan bitartean berrikerian edo eguzki pixka bat hartzen zazpiak arte, eta beranduago arte ere bai", erantsi zuen Iñaki Lauzirrikak.

800 ALUMNOS EN LA ACTUALIDAD

La ikastola Armentia de Gasteiz, que cuenta con tres líneas hasta tercero de la Primaria, acometerá en breve las obras en lo que fue la iglesia del convento de Oblatas que ocupa desde su creación hace 16 años, para acondicionar las seis aulas que precisa para completar las líneas en la Secundaria. Además de las seis aulas que se construirán en la

parte superior de la actual iglesia, habilitarán una sala multiusos, que podría servir también para la práctica de deportes, y un comedor escolar en la planta inferior. La ikastola Armentia nació en 1992 y cuenta en la actualidad con 800 alumnos, lo que supone un récord en cuanto a crecimiento del alumnado.



800 ÉLÈVES À L'ACTUALITÉ

L'ikastola Armentia de Gasteiz entreprendra bientôt des travaux dans ce qui fut l'église du couvent de Oblatas, et qu'elle occupe depuis sa création il y a 16 ans, pour accueillir les six nouvelles classes du Secondaire. En plus de ces six salles, qui seront construites dans la partie supérieure de l'église actuelle, une salle

polyvalente destinée aux activités sportives sera aménagée ainsi qu'une cantine scolaire à l'étage inférieur. L'ikastola Armentia est née en 1992 et compte actuellement 800 élèves, ce qui est un record quant à l'augmentation des effectifs.

Ezagutzen duzu
Volkswagen California
berria?

Leioa Wagen Arda, Txikia, 28 - 48940 Leioa (Bizcaya) - Tel. 944 819 003 - www.leioawagen.es
Auvol Ibaizabal, 25 - 48940 Galakoa (Bizcaya) - Tel. 944 570 387 - www.auvol.com



Vehículos Comerciales



BIZKAIKO HIRUGARREN IKASTOLARIK HANDIENA, ARKADIA BAT

'Eskola Jasangarria' ziurtagiria jaso du Mungiako ikastolak

Abenduan eskuratu zuen Mungiako Larramendik Eusko Jaurlaritzak Agenda 21 sarearen barruan ingurumenaren zainketan nabarmentzen diren ikastetxeei ematen dien 'Ikastola Jasangarria' ziurtagiria. Zuzendaria, lehendakaria eta bi irakasle bildu genituen azken zortzi urteotan egin duten lanari buruzko hitz egiteko.

Mungiatik Gernikara bidean hiru kilometrora dago Mungiako Larramendi ikastola, paraje idiliko batean, Llona auzoan. Zortzi urte eman dituzte Agenda 21 sarearen barruan ingurumenaren inguruko gaiak lantzen, eta joan den abenduan 'Eskola Jasangarria' ziurtagiria jaso zuten. "Gutxienez bost urte sarean lan egin duten ikastetxeek hartzen dute parte sarietan eta kanpoko ebaluazio bat gainditu behar izaten dute. Hiru urtez behin auditoria bat egingo digute ziurtagiria berritzeko", esan zuen Joseba Llona ikastolako zuzendariak.

"Orain zortzi urte hasi ginen ikastolan ingurumena zaintzeko ekintzak antolatzen. Horretan ari ginela sortu zen Agenda 21 eta sartu egin ginen. Gauza batzuk, ondorioz, sarean egiten ditugu, beste ikastetxe batzuekin. Ikastetxe bakoitzak arlo ezberdinak hartzen ditu ikasturtean lantzeko. Gu aurten aldaketa klimatikoa ari gara lantzen, baina horrekin batera beste hainbat gai aztertu eta ekintzak burutzen ditugu", esan zuen Sabin Bareño HH eta LHko koordinatzaileak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak koordinatzen duen Agenda 21

sarea. "Ikasturte hasieran bilera bat egiten dugu Hezkuntzakoekin eta gai nagusi bat aukeratzen da. Lehen urtean berziklaia izan zen gai nagusi hori, hurrengoan ura, garraioa ondoren, energia berriztagarriak hurrengoan... Aurten aldaketa klimatikoa hartu badugu, ez du esan nahi beste arlo horiek baztertzeko ditugunik. Eko arautegi moduko bat daukagu gure ikasleek gai horiek landu ditzaten", erantsi zuen Leire Aldanak, DBH eta Batxilergoko Agenda 21eko koordinatzaileak. Geletan, esate baterako, kartelak jarri eta

item batzuk izendatzen dituzte: gelatik ateratzen direnean argiak itzaltzen diren edo ez neurtzen dute, berogailua martxan dagoenean atea ixten diren edo ez, eta gisa horretako beste zenbait ohitura ere bai. Ikasleek berek gelaz gela galdeketa egin eta taula batzuk osatzen dituzte, eta hilabete bukaeran grafikoak argitaratzen dira. Eraitza horiek Txoko Berdean eskegitzen dira. LHn eta DBHn batzorde bana dago irakaslez eta ikaslez osatua lan hau guztia aurrera eramanez ahal izateko. "Ikasleen partaidetza



boluntarioa da, baina asko gustatzen zaie lan hau, eta asko apuntatzen direnez, zozketa egin behar izaten dugu. Batzorde hori da ekintza-plana egin eta gaia nola landuko den erabakitzen duena. Errazena gisako gai hauek Naturan sartzeko litzateke, baina ahalik eta arlo gehienetan

lantzen saiatzan gara”, esan zuten Sabin Bareñok.

ABERE AZOKA

Gelatik kanpo ere ingurumenarekin lotutako ekintzak antolatzen dituzte. Iaz, esate baterako, Abere Azoka egin zuten eta aurten antzerki bat prestatzen ari dira ikastolan ez ezik herrian ere emateko asmoarekin. “Irakasleen asmoa da urtean behin gauza berezi bat antolatzea. Iaz irakasleen, gurasoen eta ikasleen artean antolatu genuen azoka hori eta oso ondo atera zen. Udalak jarri zizkigun kaiolak eta sareak, eta ume bakoitzak bere maskotak ekarri zituen. Irakasleek egin zuten lan handia; Anderrek, esate baterako, bere ardiak ekarri zituen. Ikasle ohi batzuek ere hartu zuten parte. Idi parek ekarri zutenak, esate baterako, ikasle ohiak ziren. Hipika bat badugu hemendik gertu eta haiek zaldiak ekarri zizkiguten”, esan zuten **Karlos Uriagereka** lehendakariak.

Aurten aldaketa klimatikoaren inguruko antzerki bat prestatzen ari dira. Aldaketa klimatikoaren ondorioz herrialde ezberdinetan sortzen diren arazoak agertuko ditu antzezlanak.

“Urtero ibaia garbitzea ere joaten gara. Ur ertzean biltzen dituzten plastiko eta zaborrak herriko plazan pilatzen dituzte, guztiak ohar gaitzen. Ikasturte hasieran oinez etortzen gara herritik hona. Biologo baten laguntzarekin inguruko biodibertsitatea aztertzen dugu. Irtearak antolatzen ditugu hemen bertan zer landare mota eta abere dauden, eta horiek zer erabilera egiten den ikusteko. Oso interesgarriak izaten dira irteera horiek. Eguzki plakak ere baditugu eraikuntza baten teilatuan,

eta energia berriztagarrien gaia ere lantzen dugu”, gogoratu zuten Joseba Llonak. Ikastolak dituen bertan lantzen duten baratza aipatu behar da. Alemana hautuzko gisa ematen da Batxilergoan, trikitixa tailerra dute, eta kirol eskaintza izugarria lantzen da asteburuetan, horretan zuzen zuzenean gurasoak inplikatzeko direlarik. Santa Ageda eskea oso indartsua da eta inguruko auzoetatik taldetxoak ateratzen dira. “Ikasleek beren kontura antolatutako tailerrak bultzatzen ari gara. Astean berriz eskaladantza erakusten ariren dira ikasle batzuk, eta beste batean dantza modernoa erakusten dute”, kontatu zuten Leirek. •



HIRU LERROKO IKASTOLA

LARRAMENDIK 1.200 IKASLE BILTZEN DITU. Bizkaiko rankinean hirugarren dago, Lauro eta Asti Lekuren ondotik. “Gure helburua ez da handitzea, kalitatean aurrera egitea baizik. 1998an 0-3 zikloa zabaldu zuenean eman zuten jauzi handia. Horri esker zabaldu genuen hirugarren lehoa”, esan zuten ikastolako lehendakariak. Hain ikastola handia izanik ere, nekazaritzarekin loturak dituen ikastola izan da beti. “Badugu beste irakasle bat segalari gisa lehiaketetan ibili dena, orain erretiratu samarrik badabil ere”, gogoratu zuten Joseba Llona zuzendariak. “Ikastola honek beti izan du lotura estua inguruarekin, nahiz eta gurasoen lana erabat hirikoa izan”, erantsi zuten. Larramendi ikastola Mungiako parrokiaren sortu zen orain 43 urte, eta 1979an etorri ziren Llona auzora. “Porrot egindako zerri granja eta baserri bat ziren hemen. Bost pabilioiak, etxea eta lursailak erosi genituen. Geroztik LHko eraikuntza, Batxilergoarena, frontoi estalia eta beste zenbait zerbitzuzune eraiki ditugu. Estetikoki, ez dago zalantzarik, ikastola oso berezia da: sakabanatuak daude zikloak eta halako lasaitasuna bat ere ematen du horrek, arazoak sortzen baditu ere. Euria egiten duenean, esaterako, zaila egiten da eraikuntza batetik bestera igarotzea, baina eguraldi onarekin oso ederra da leku hau. Estali gabeko instalazio oso onak ditugu, hala nola, futbol zelai handia, 400 metroko atletismo pista, eskubaloiko sei kantxa eta beste hainbat leku”, esan zuten Karlos Uriagereka lehendakariak. Haurtzaindegian, zero urteko hiru gela dituzte (24 ume), urte bateko lau gela (52 ume) eta bi urteko lau gela (72 ume). Hiru urtetik gora hiru lerroko ikastola da, ondorioz, Mungiako Larramendi, eta Batxilergoan bi lerro ditu. •

BETIDANIK INPLIKATU DA LARRAMENDIK IKASTOLA NATURAREKIN, BAINA BADIRA ZORTZI URTE BURU BELARRI DARAMATELA AGENDA 21 SAREAREN BARRUAN INGURUKO GAIAK LANTZEN.

PREMIO “ESCUELA SOSTENIBLE”

Larramendi Ikastola, tercera en el ranking de Bizkaia por su magnitud con 1.200 alumnos, es única en cuanto a su estructura arquitectónica y es única también por su entorno paisajístico. Desde hace ocho años han venido trabajando con especial cuidado el tema del desarrollo sostenible y el cuidado del medio ambiente.

Estas Navidades han recibido el premio “Escuela Sostenible”, un certificado que reconoce dicha labor. El presidente y el director de la ikastola, así como dos profesores, nos mostraron los entresijos del proyecto y nos hablaron de la realidad cotidiana de la ikastola.



PRIX «ÉCOLE SOUTENABLE»

Larramendi Ikastola, troisième au classement des ikastola de Biscaye ayant le plus d'élèves (1.200), est unique à double titre: par sa structure architectonique d'une part, par son environnement paysager d'autre part. Cela fait huit ans que l'ikastola travaille sur le thème du développement soutenable et

de la préservation de l'environnement. Le travail a porté ses fruits puisque l'ikastola a reçu à Noël dernier le prix “Ecole Soutenable”. Le président, le directeur et les enseignants de l'ikastola nous ont montré les dessous du projet et nous ont parlé de la vie quotidienne à l'ikastola.

dipuzkoa:



LASKORAIN, IKASTOLA SOLIDARIOA

**Gabonetako Merkatu Txikian
17.500 euro bildu dituzte
Indian eta Saharan proiektuak
gauzatzeko**

Oso egitasmo gutxi daude irakaskuntzan Tolosako Laskorain ikastolaren Gabonetako Merkatu Txikiak bezain ondo elkartasuna, garapen eramangarria, ikasleen eta gurasoen arteko lankidetzeta, ikasle ohiekiko lotura eta beste hainbat balore lantzen dituztenak. Aurtengo edizioak 17.500 euro bildu ditu, eta Saharan ikastetxe bat eta Indiako iparraldean gizarte zein kultur zerbitzuen gune bat eraikitza bideratuko dituzte.

Gaur egun merkatu txikiak edonon egiten dira, baina Laskoraingoa aitzindaria izan zen orain hamalau urte. Ekintza horren helburu nagusia ikasleen baloreak, jarrerak, emozioak eta portaerak hobetzea da, baina emaitza ekonomikoa ere ezin da baztertu: aurtén 17.500 euro bildu dituzte Indian eta Saharan bi proiektu burutzeko. Horretarako, 150 ikasle, 85 guraso eta langile, ikasle ohi talde bat eta 170 dendari mobilizatu dituzte.

1995ean hasi ziren lanean proiektuarekin, baloreen lanketaz kezkatuta.

DBH3tik Batxilergoko bigarren mailara bitarteko ikasle boluntarioek egiten dute lan merkatu txikia prestatzen eta saltzen, gurasoen eta irakasleen laguntzarekin, noski. "Azaroan hasten gara leloa eta helburuak erabakitzen. Aurtengo leloa 'Bi mundu, helburu bat' izan da, bildu dugun dirua bi herrialdetara bideratu

dugulako: Indiako iparraldean dagoen Gujarat Estatuan, Sanand herrian, bizi diren tribuentzat gizarte zein kultura zerbitzuetarako gune bat eraikitzekeo batetik eta, bestetik, Saharako lurralde liberatuetan, Meheriz herrian, lehen hezkuntzako eskola bat jasotzeko. Sanand herrian gure ikasle ohi batzuk ari dira lanean Ibarako Misio Taldearekin batean, eta Meheriz herriarekiko harremana, berriz, Tolosaldea Sahararekin elkartean lan egiten duten ikasle ohi bidez egin dugu. Urtero diru-laguntzak zein talderi emango zaizkion erabakitzen denean, beti ere gure ikasle ohiak lan egiten duten elkartean bidez bideratzen dugu laguntza hori, eta horien bidez egiten dugu bidali dugun diruaren jarraipena ere. Elkarte horietako kideak izaten dira, halaber,



“Urtero diru-laguntzak zein talderi emango zaizkion erabakitzen da; beti ere gure ikasle ohiek lan egiten duten elkarteen bidez bideratzen dugu laguntza eta jarraipena ere bai.”



“Jantziak, jostailuak, ordenagailuak, bizikletak, liburuak eta etxerako baxerak, erredizak eta dekorazioa aurki daitezke gure merkatuan.”

aurretik gela barruan lurralde horietako egoeraren berri ematen digutenak ere”, esan zuen Koldo Jauregik.

DENDAZ DENDA

Ikastolako ikasleak pasatzen dira lehenik dandaz denda urteko helburuen berri emanez, eta guraso talde batek biltzen du ondoren dendariak emandakoa. Abenduaren 23rako dena prest izaten dute Triangulo plazako kultur etxean, txukun-txukun salmahaietan jarri eta prezioak ipintzeko. Gurasoen eta ikasleen artean egiten dute lan hori. Merkatua abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitartean dago zabalik.

“Kultur etxea leku egokia da, baina txiki geratzen ari zaigu. Beotibar pilotalekua betetzeko adina jenero biltzen zaigu. Kontuan izan herriko

dendarien erdiak hartzen duela parte. Horiek gauza berriak ematen dizkigute, baina gurasoek urte osoan zehar etxean soberan dutena ekartzen digute eta ikastolako ganbaran pilatzen dugu. Jantziak, jostailuak, ordenagailuak, bizikletak, liburuak eta etxerako baxerak, erredizak eta dekorazioa aurki daitezke gure merkatuan. Gure ikasleen artean zabaldua dago modaren eragina, arropa markakoa erabiltzeko joera, eta merkatu txikiaren bidez bigarren eskukoak erabiltzen dituen jendea badagoela ikusten dute, eta erabili egin behar direla gainera. Garapen eramangarriaren aldeko ekintza ere bada”, esan zuen Koldo Jauregik.

BESTE IKASTOLATARA ZABALTZEN

Laskoraingo irakasle hau saiatu da ekintza hau beste

ikastolara zabaltzen. “Zuzendarien mintegi batean ere izan nintzen ekintzaren berri ematen. Baloreen lanketan aukera

handiak ematen dituen ekintza da. Nire helburua ikastolen ekintza gisa finkatzea zen. Zergatik ez da posible ikastola ezberdinetan helburu batzuk landu urtean zehar, eta prozesuaren amaiera gisa merkatu txiki bana antolatzea Eguberritako oporretan edo asteburu batean? Horrela eginda, helburu sendoagoi erantzuteko moduan izango ginatke. Seguru nago ikastola ezberdinetako ikasle ohi asko izango dela gobernuz kanpoko erakundeetan eta premia

larriak ikusiko dituztela”, jarraitu zuen.

Laskorain ikastolako ikasleen elkartasun lanak ez du atsedenic hartzen. Merkatu txikia itxi eta dandaz denda pasatu ziren ikasleak emaitzak jakinarazi eta eskerrak emateko. Segidan, gainera, Saharako akanpalekuetan bizi diren errefuxiatuentzat elikagaiak biltzen hasi ziren.

“Ikasle bat, gutxienez kilo bat” zen kanpainaren leloa. Tolosan 10.000 kilo bildu zituzten. Laskorain ikastolak horietatik

Odei Esnaola

(Laskorain Ikastolako Batxilergoko ikaslea)

“Bizitza guztirako kontratua egingo digute”

“Aurten gu izan gara merkatu txikiko beteranoak, laugarren urtez egin baitugu lan bertan. Datorren urtean unibertsitatean egongo gara. Hala ere, azoka txikiko egun batez guk lan egingo dugula hitz eman dugu. Beharbada bizitza osorako kontratu bat egingo digute martxa honetan. Ez dugu diruagatik lan egiten, gobernuz kanpoko erakundeek laguntzeko baizik, eta gure artean oso giro ona dugulako ere bai. •

Amaia Arana

(Laskorain Ikastolako Batxilergoko ikaslea)

“Gurasoekin eta irakasleekin batera egiten dugu lan”

“Nik ere laugarren urtez egin dut lan. Lehen urtean ez dakizu gehiegi zertan sartzen zaren, baina oso ondo pasatu nuen; asko gustatu zitzaidan biltzen zen dirua zertarako zen, eta poliki-poliki gure helburuen garrantziaz jabetzen joan naiz. Egia da lan egiten dugula, baina lagunartean zaude, eta irakasle zein guraso talde bat ere ezagutzeko aukera ematen du proiektuak. Normalean koadrilan apuntatzen gara; nik ondo pasatzen dut, eta urtero-urtero lanean jarraitzeko asmoa dut. Beste ikastolako jendearekin merkatu txikira etortzeko gomendatuko nioke eta lehen egunetan etortzeko, gauza on eta merkeak ditugulako”. •

MERKATU TXIKIA BATE UN RÉCORD

El Merkatu Txikia que la Laskorain Ikastola de Tolosa organiza desde hace catorce años durante las vacaciones de Navidad ha batido este año el récord de recaudación con 17.500 euros que se destinarán a la construcción de una escuela en el territorio liberado del Sahara y un centro de servicios en el norte de la India. Son los ex alumnos del centro, que trabajan en las ONG,

quienes informan de los proyectos, se encargan de la ejecución e informan luego a la ikastola de su desarrollo. El mercadillo de Laskorain moviliza a 150 alumnos voluntarios, 85 padres y trabajadores y 170 comercios de la localidad. Koldo Jauregi, uno de los impulsores del proyecto, cree que la idea es extensible al conjunto de las ikastolas.

RECORD POUR LE MERKATU TXIKIA

Le Merkatu Txiki organisé par l'ikastola Laskorain de Tolosa depuis quatorze ans pendant les vacances de Noël a battu cette année un record puisque sa recette a atteint 17.500 euros. Cette somme servira à la construction d'une école dans le Sahara et à celle d'un centre de services dans le nord de l'Inde. Ce sont les anciens élèves, qui travaillent dans des ONG et qui sont

informées des projets par celles-ci, qui sont chargés d'acheminer les fonds et de faire part à l'ikastola de l'avancée des projets. Le marché de Laskorain mobilise quelques 150 élèves, 85 parents et bénévoles et 170 commerces de la commune. Koldo Jauregi, l'un des instigateurs du projet, pense que l'initiative peut être étendue à l'ensemble du réseau ikastola.



GARBERA
ARRASATE



iparraldekoa:

HEGOA ARAKAMA HEZKUNTZA AHOIKULARIA MANEX ERDOZAINTZI-ETXARTEKO PATIDAN. HAMAR URTE BETE DITU KOLEGIOAK.



HAMARGARREN URTEURRENA OSPATUKO DU AURTEN LARTZABALEKO KOLEGIOAK

Lau eskualdetako 122 ikasle biltzen ditu, zuberotarrak barne

Hizkuntza aldetik ikastetxe gutxi izango dira gurean Larzabaleko kolegioan adina euskara mota entzuten direnak. Oztibarreko xuka edo zuberera suma daitezke ikasleen ahotan euren artean ari direnean. Irakasleen artean ere gauza bertsua gertatzen da. Zuzendaria, Germaine Urruty, Larrañekoa da eta zubereraz hitz egin digu. Aurten hamar urte betetzen dira Iparraldeko hirugarren kolegio hori Donaixtin sortu zela eta egitarau polita prestatu dute.

Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasleak Larzabalen biltzen dituen Manex Erdozaintzi-Etxart kolegioaren eraikin berria 2007an inauguratu zen, baina zortzi urtez egona zen aurretik Donaixtin. Beraz, aurten beteko dituzte hamar urte eta goraki ospatzekotan dira. "Hogei ikaslerekin zabaldu zen lehen gela Donaixtin Kanboko

kolegioaren eranskin moduan eta Kanboko irakasleak ibiltzen ziren joan-etorrian. Poliki-poliki joan zen ikasle kopurua emendatzen eta irakasle taldea ere osatzen", esan zigun Hegoa Arakama bertako hezkuntza aholkulariak.

Ospakizunak otsailaren 6an hasi ziren. Lasarteko Landaberri ikastetxeko

antzerki taldea izan zen bertan emanaldi bat eskaintzen.

Kantaldi handi bat egingo dute, gurasoen artean ere kantariak badirelako. Ekainaren 5ean egun osoko ospakizuna egingo dute kolegioan eta bertako ikasleen emanaldi bat eskainiko dute. "Aurten itsasoaren inguruko lanketa bat egiten ari gara. Eñaut

Alfaro irakasleak badu anaia bat marinela, Amaiur. Atlantikoan egin den lasterketa batean hartu du parte eta lasterketa horren jarraipena egin dugu. Itsas lasterketa izango da emankizunaren haria, baina beste hainbat gai ere landuko ditugu, hala nola, ekaitza gorputz adierazpenaren bidez, edo bideoak, edo itsasoari lotuak

diren kantuak, edo beste hainbat gauza", esan zuen Hegoa Arakamak.

122 IKASLE
Kolegioak 122 ikasle ditu. "Zuberoako guztiak hona etortzen dira, Baigorri eta Garazi eskualdekoak, bertakoak, Oztibarrekoak alegia, Amikuzekoak eta Ortaize eskualdeko parte bat ere bai. Ikasle kopuru



aldetik kolegiork txikiena da gurea. Inguruan ditugun frantsesezko kolegioak Garazi eta Donapaleun dira, baina ikastolako ikasle ia guztiak hona etortzen dira, orain batez ere, hemen ditugun baldintzak oso onak baitira. Beste eruedetako ikasleekin batera etortzen dira hona autobusez, Kontseilu Orokorrak kudeatzen baitu garraioa. Linea nagusi batzuk dituzte, Baigorri, Donapaleura edo Maulera, eta handik beste linea txikiago batzuk herri txikietara. Goizean bederatzia hoge gutxiagotan hasten dira, baina batzuek oso goiz hartu behar izaten dute autobusa. Barkoxen, esate baterako, zazpiak eta

BAIGORRI, GARAZI, OZTIBAR, AMIKUZE ETA ORTZAIZEKO IKASLEAK BILTZEN DIRA PATIO EDER HONETAN KIROLA EGITERA. PAGATXA ELKARTEAK BURUTUTAKO KANPAINARI ETA EUSKAL ERAKUNDE ZEIN HERRITARREN LAGUNTZARI ESKER LORTU ZEN, 2007AN, ERAIKUNTZA ZORAGARRI HAU ALTZATZEA LARTZABALEN.

laurdenetan hartzen dute. Eta arratsaldean laurak eta erdietan ateratzen dira. Bazkaltzen hemen gelditzen dira. Olharan ostatutik ekartzen dugu janaria”, esan zigen **Germaine Urruty** zuzendariak, kantina eder eta koloretsu bat erakusten zigan bitartean.

Gela bakoitzeko bost bat zuberotar dituzte. Irakasleek euskara batuan egiten dute,



baina etengabe saiatzen dira zuberotarrak beren ahoko adierazpenetan gutxienik zubereraz mintza daitezzen. “Baina zaila egiten zaie eta neurri batean galdu egiten dute. Nik jarraitzen dut zubereraz hitz egiten. Beste zuzendariekin bilera batean nagoelarik, aldatzen dut zerbait, baina oso barruan dut nire euskalkia”, jarraitu zuen.

EUSKARA MAILA TXUKUNA

Lartzabaleko kolegioan familia euskaldunetako ikasleak dira gehienak. “Etxean gurasoek euskaraz hitz egiten duten ikasleak ditugu. Baina frantsesa oso presente dago, hori ezinbestekoa da gazteen artean, kalean ere hala gertatzen delako. Guk klaseak batuan emango ditugula esaten diegu, baina bakoitzak bere euskalkia

erabiltzeko eskatzen diegu. Hala ere, oso zaila egiten zaie. Zuberotarrak beren artean beti zubereraz ari diren arren, lagunuen aurrean zuberotarren hitza hartzeko eskatzen diegularik, kostatzen zaie. Konplexu puntu bat dute oraindik. Gurasoekin bilerak ere euskaraz egiten ditugu, nahiz eta tarteka batzuek ondoan itzultzaile bat behar duten. Edozein modutan ere, euskara maila txukuna dute gure ikasleek eta gurasoek”, jarraitu zuen Hegoak. Bazkalondoko aisialdian tailerrak antolatzen dituzte. Xibaren Oreka proiektuan aitzindari da Lartzabaleko kolegioa. Eñaut Alfaro Xibako kidea Gorputz Heziketako irakaslea da bertan. Kolegioak oso instalazio onak ditu kirola egiteko: frontoi estali handi bat, pinpon mahaia, saski baloi kantzak... Orain futbol zelai bat atondu dute. Gorputz adierazpena eta kantua sartuta daude ikasgelan, baina ez da tailer berezirik antolatzen. “Dantza eta pilota bakoitzak bere herriko elkarte bidez lantzen dituzte”, gogoratu zuen Hegoak.

EL COLEGIO DE LARTZABALE CUMPLE AÑOS

El colegio Manex Erdozaintzi-Etxart, que hoy acoge a 122 alumnos de Secundaria de Nafarroa Behera y Zuberoa en el nuevo edificio de Lartzabale, nació hace diez años en Donaixti. Celebrarán este décimo aniversario con un programa de actos que incluye una representación teatral que tuvo lugar el 6 de febrero, un recital de cantautores, entre los que figuran varios padres del colegio, y una fiesta en junio en la que los alumnos ofrecerán a los padres un espectáculo cuyo hilo conductor será la travesía del Atlántico realizada por Amaiur Alfaro y que contará con representaciones de expresión corporal, canto, danza y teatro.

ANNIVERSAIRE DU COLLÈGE DE LARTZABALE

Le collège Manex Erdozaintzi-Etxart, qui accueille 122 élèves de Basse-Navarre et de Soule dans le nouvel édifice de Lartzabale, est né il y a dix ans à Donaixti. Parmi les animations proposées pour ce dixième anniversaire, une pièce de théâtre qui s'est jouée le 6 février, un récital musical auquel prennent part d'anciens parents du collège, et une fête en juin lors de laquelle les élèves présenteront un spectacle aux parents, spectacle ayant pour fil conducteur la traversée de l'Atlantique réalisée par Amaiur Alfaro et qui réunira représentations d'expression corporelle, danse et théâtre.

Germaine Urruty

(Zubereraz mintzo den zuzendaria)

LARRAÑEKO DA SORTZEZ ETA ALOZEN BIZI DA. 46 urte ditu eta esperientzia profesional desberdin batetik landa, erabaki du ikasketen berriz hartzea euskararen erakaskuntzan lan egiteko.

Batxilergoa bukatu zuelarik Atharratzera joan zen 18 urterekin espartinak egiten zituen Etxandi lantegira. “Lana gogorra zen, baina gazte andana bat ginen, eta sekulako dinamika eta elkartasuna genuen. Baina nire ametsa euskara zen beti. Nire gurasoen hizkuntzan mintzatu nahi nuen. Espainola eta ingelera ere ikasi nituen, baina ez dago ama hizkuntza ezabatuko duen indarrik. 6 urte egin nituen espartin lantegian eta nekazaritzako aseguru etxe batean ibili nintzen ondoren. Baina irakaskuntza eta

euskara nituen buruan, eta 35 urte nituela, goi mailako ziklo bat Laborantxako Teknikalarietan egin eta pasatu nintzen unibertsitatara. Lizentzia eta ‘Maîtrise’ bat egin nituen Lurralde Antolamenduan. 5 urtez eskola pribatuetan ibili naiz elebidun erakaskuntzan”.

Irailaz geroztik kolegioko zuzendaria da eta ontsa instalatu ondoan, nahi luke bere heziketa eta pedagogi taldeekin gogoetatu kolegioko geroari buruzko proiektu bat.



“Garazi eta Donapaleutik ikastolako ikasle ia guztiak hona etortzen dira, orain batez ere, hemen ditugun baldintzak oso onak baitira.”

“Hogei ikaslerekin zabaldu zen lehen gela Donaixtin Kanboko kolegioaren eranskin moduan eta Kanboko irakasleak ibiltzen ziren joan-etorrian.”





GURASOAK ALDAMIOAN

Lesakako Tantirumairu edertu egin dute auzolanean

Kanpoko bisitari batek Lesakako herriaren erdigunean ikastola non dagoen galdetzen badu, Arretxea kalea seinalatzen diote eskuarekin eta *"ezkerretara etxe gorri bat ikusiko duzue"*, esaten diote. Joan den maiatzean gurasoek elkar hartu, eta teila-kolore gorritz margotu zuten ikastola.

Hiru solairu, sotoa eta ganbara dituen harrizko etxe bat okupatzen du Tantirumairu Ikastolak Lesakan. Cornelia Lekuona emakumeak 1939an fundazio bati utzitako etxea da, eta hortxe ireki zuen lehen gela ikastolak 1974an. 1990ean etxea barrutik hustu eta erabat berritu zen. Gerotzik zatiren bat edo beste margotu zituzten gurasoek, baina etxea edertu baten premian zegoen.

"Sarrera eta lehen solairua txukundu behar genituela erabakirik, gurasoei dei egin genien iazko Eguberritako oporretan eta, zenbat jende agertu zen ikusita, etxe

oso barrutik margotzea erabaki genuen. Gabon bezperan hasi eta Erregeak bitarteko oporrak hemen pasatu genituen. Hain txukun gelditu zen, non bukatu eta jendea kanpotik ere margotu egin behar genuela esaten hasi baitzen. Egia esanda, oso hondatua zegoen fatxada. Ikastolaren izena ere ez zen apenas irakurtzen. Eta maiatzean astebetean, bi asteburu barne, margotu genuen ikastola kanpotik. Larunbat arratsalde batean 25 guraso biltzera iritsi ginen. Besteetan, sei edo zazpiko talde bat aritu ginen. Irakasleak ere aritu ziren lanean; teilatuko erpinaren azpia Kontxi

Errok margotu zuen, eta logoa eta letrak berriez, Lupe Muxikak", esan zuen **Joxe Mari Erkizia** ikastolako lehendakariak Lupe andereñoa seinalatuz.

Joxe Mari Erkiziarekin batean gurekin ziren logoa eta letrak pintatzen ibilitako andereñoa, Josema Ramos gurasoa, Jose Antonio Arruti Txutxi Guraso Batzordeko kidea eta Joseba Lasarte ikastolako zuzendaria. Txori txiki batek kontatu zigunez, taldetxo honi esker gidatu ziren lan guztiak.

Langileen artean emakumeak ere ba omen ziren. Eraikineko leiho guztiak margotzen, logoa eta ikastolaren izena idazten, emakumeak aritu

ziren. *"Egia esan behar bada, oso aldadio seguruak jarri genituen, segurtasun handikoak. Gastatu genuen diru apurra horretan gastatu genuen"*, erantsi zuen ikastolako ordezkariak.

Hasieran beheko solairua, sarrerakoa bereziki, txukuntzeko asmotan hasi ziren, baina *"harrotuz joan ginen lana aurrera zihoala, hain ginen denak pozik. Herrian jende askok esan zigun oso polita utzi genuela, eta horrekin gu ere gustura geratu ginen"*, esan zuen Lupek.

PHOTOSHOP ETA BOZKETA

Eguberritako oporretan margotu zuten barrualde





guztia. "Joxemari eta biok hasi ginen Gurasoen Batzordean kontu hau mugitzen. Ikastolak berak eskatzen zuen txukundu bat. Umidura orbanak zituen hormetan. Josema Ramosi komentatu genion eta honek ezetz esaten ez dakenez, segituan animatu zen. Josema etxex etxe ibiltzen da konponketak egiten langile talde batekin, eta esperientzia pixka bat badauka lan honetan. Gurasoei dei egin, eta sekulako taldea agertu zen

lehen egunean; eta hala, lehen solairua bakarrik ez, barrualde guztia egingo genuela erabaki genuen", hasi zen kontatzen, Jose Antonio Arruti Txutxi. "Kolorea aukeratzeko simulazio batzuk egin genituen Photoshopean, eta aukeratu zirenen artean bozketa egin zen gurasoen artean. Gurasook horretan ere parte hartu nahi izan genuen. Oso kolore ausarta aukeratu genuen, kanpotik begiratu eta nabarmen geratzen zena, baina

asmatu egin genuen", esan zuen, bestalde, ikastolako zuzendariak, Joseba Lasartek.

Pintura hornitzaileak ere prezio berezia egin zien ikastola zirelako, eta oso modu onean lortu dute ikastola goitik behera txukuntzea. "Orain begira jarri eta harro sentitzeko modukoa dago, askoz ere erakargarriagoa", esan zuen Josema Ramosek.

Tantirumairu Ikastola 1974an sortu zen, 1988an antolatu zuen Nafarroa Oinez eta 1991ean lortu zuen legezztatzea. Gaur egun 101 ikasle ditu, bi eta hamaika urte bitartekoak.



JOLASTOKIETAN GAZTELERARIK ENTZUTEN EZ DEN IKASTOLA

BI URTETIK HASI ETA HH ETA LH DITUZTE BERTAN. "Auzoetako jendea ere badaukagu, baina ganadurik gabeko etxeak dira ia denak. Hemen baserritar oso gutxi dago ikasleen artean, baina euskaldunak dira denak. Hemen euskaraz bizi gara, ez dugu gaztelaraz aritzeko ohiturarik ez ikastolan eta ez kalean. Gure patioan ez da ia inoiz gaztelarrik entzuten", esan zuen Joseba Lasarte ikastolako zuzendari eta ingelerako irakasleak.

Bertsolaritzak beti izan du indarra Lesakako ikastolan. "Bertatik ateratakoak dira Silveira, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea, Erika Lagoma eta beste hainbat. Bertsolaritza gela barruan lantzen da, eta Estitxu Arozenak gidatzen duen herriko bertso eskola ere bertan ematen da", jarraitu zuen Lupe Muxikak.

SUBIDOS A UN ANDAMIO

El edificio que alberga la Ikastola Tantirumairu de Lesaka ahora parece otra cosa. Gracias al trabajo de un grupo de padres y madres, que invirtieron las vacaciones de Navidad del pasado curso y una semana del mes de mayo, ofrece un aspecto completamente remozado. Realizaron un llamamiento a los padres para pintar la entrada y aulas del primer piso y se presentaron con tantas ganas de trabajar que decidieron pintar todo el edificio por dentro y les quedaron arrestos para hacer planes con vistas a pintar la fachada. Subidos a los andamios, los padres y las madres de la ikastola necesitaron tan solo una semana con dos fines de semana para maquillar la ikastola. Hubo un día en que estuvieron trabajando casi treinta personas. Ahora luce un color teja granate que llama la atención de los que pasan por el lugar. Y todo ello por unos pocos euros y kilos de ilusión.

LES PARENTS SUR L'ÉCHAFAUDAGE

Le bâtiment abritant l'ikastola Tantirumairu de Lesaka n'a plus la même allure. Grâce au travail d'un groupe de parents, qui ont passé leurs vacances de Noël et une semaine de mai à l'ikastola, cette dernière a été complètement relookée. L'entrée et les salles de classe du premier étage ont été repeintes, puis, sur la lancée, une couche de peinture a été mise sur tous les murs intérieurs de bâtiment. Etape suivante: la façade. Une fois l'échafaudage posé, les parents n'ont eu besoin que d'une semaine et deux week-ends pour figoler la restauration du bâtiment. Certains jours, ce sont quasiment trente personnes qui ont mis la main à la pâte. Désormais, la couleur tuile grenat du bâtiment attire l'attention des passants. Et tout cela a été réalisé dans la joie et à moindre frais.

"Hain ginen denak pozik. Herrian jende askok esan zigun oso polita utzi genuela, eta horrekin geu ere gustura geratu ginen."

"Ikastolaren izena ere ez zen apenas irakurtzen. Eta maiatzean astebetean, bi asteburu barne, margotu genuen ikastola kanpotik."



Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Deusto

Europarako graduak

2. promozioa

Ateak Zabalik

Jardunaldiak

Otsailak 6 · Martxoak 13 · Maiatzak 8



Donostiako Campusa
943 326 308

e-mail: infoacad@ud-ss.deusto.es
www.nuevosestudiantes.deusto.es

Bilboko Campusa
902 302 301

e-mail: nuevosestudiantes@deusto.es
www.nuevosestudiantes.deusto.es